

AURKEZPENA, ERAKUSKETA ETA NEGOZIOA "ERAKUSKETA-GUNEAN"

Beste behin ere Egurtek ekitaldiko "Erakusketa-gunea" topagune bihurtuko da profesionalentzat, eta giro aproposa sortuko da bertan harreman komertzial berriak sortzeko.

"Erakusketa-gune" horrek berriro izango du **Speakers Corner** txokoa, sektoreko produktu eta zerbitzu berrienak aurkezteko toki bat alegia, eta baita ere **Made in Basque Country** gunea, zurez eginiko euskal produktuen erakusketa ostatatuko duena.

JARDUNALDI TEKNIKOAK

ZURAREN ARLOKO BERRIKUNTZARI BURUZKO BASKEGUR JARDUNALDI TEKNIKOETAN hizpide hartuko dira basogintza/zurgintza eta basoetako bioekonomia sektoreari buruzko prestakuntzaren arloko hainbat gai.

2018ko Egurtek ekitaldian parte hartu zuten 70etik gora konpainiak aukera ezin hobea izan zuten beren negozioen abantaila guztiak aurkezteko erakusketa-gunea bisitatu zuten 1.200 delegatu, hizlari eta antolakunde profesional baino gehiagoren aurrean.



EGURTEK AZOKAREN ANTOLAKUNTZA BATZORDEA

- Bilboko Ingeniaritza Eskola (UPV/EHU)
- EAEko Ingeniari Industrialen Elkargo Ofiziala
- Bizkaiko Aparejadore eta Arkitektoen Elkargo Ofiziala
- Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala (COAVN)
- Donostiako Goi-mailako Arkitektura Eskola Teknikoa (UPV/EHU)
- Unibertsitate Eskola Politeknikoa (UPV/EHU)
- BASKEGUR
- HAZI FUNDAZIOA
- Eusko Jaurlaritza, Ekonomi Garapen eta Azpiegitura Saila
- Bilbao Exhibition Centre (BEC)



KONTAKTU KOMERTZIALAK

IPARRA, HEGOA ETA NAZIOARTEA

Gorka García
Tel: (+34) 94 404 00 32
ggarcia@bec.eu

ERDIGUNEA

Francisco Javier González Moreno
Tel: (+34) 918 465 010
fjgonzalez@bec.eu

ATLANTIKOA, GALIZIA ETA PORTUGAL

Roberto Gómez Lorenzo
Tel: (+34) 986 36 76 54
rlorenzo@bec.eu

KATALUNIA ETA LEVANTE

Francisco Oliva de Mesa
Tel: (+34) 93 666 25 52
foliva@bec.eu

Azkue erronda, 1
48902 Ansio-Barakaldo
Tel.: (+34) 94 404 01 24

#egurtek

egurtek@bec.eu
www.egurtek.com
www.bilbaoexhibitioncentre.com



Babeslea:



EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE
DESARROLLO ECONOMICO E
INFRAESTRUCTURAS



EXPOSSIBLE!



ZURAREN
ARKITEKTURA
ETA TEKNIKAK

EGURTEK

8. ZUREZKO ERAIKUNTZA ETA ARKITEKTURARI BURUZKO NAZIOARTEKO FOROA

2020KO
URRIAK
14-15



EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE
DESARROLLO ECONOMICO E
INFRAESTRUCTURAS



EXPOSSIBLE!

www.egurtek.com
www.bilbaoexhibitioncentre.com

RTEK

ARKITEKTURA ETA ZURARI BURUZKO ESTATUKO ERREFERENTZIAZKO KONGRESUA

2020ko urriak 14an eta 15ean da zurezko eraikuntzaren hurrengo hitzordua zortzigarren EGURTEK Nazioarteko Foroan.

EGURTEK, Arkitektura eta Zurari buruzko Estatuko kongresu bakarra, bere sustraiak sendotuz joan da edizio bakoitzarekin. Eta gaur egun, zurezko eraikuntzak ekonomian, ingurumenean eta gizartean betetzen duen funtzioari esker, Europako erreferentziako ekitaldia bihurtu da.

Hizlarien maila handiari eta lanen bikaintasunari esker, aurtengo Egurtek ekitaldiak elkarrengana bilduko ditu hainbat herrialdeetako arkitektoak, ingeniariak eta zurarekin lotutako sektoreetako profesionalak.

Azken edizioan hamaika herrialdeetako profesionalak hurbildu ziren ekitaldira: Alemania, Belgika, Bulgaria, Finlandia, Frantzia, Holanda, Italia, Polonia, Portugal, Erresuma Batua eta Espainia.

Hurrengo ediziorako berritasun gisa, Egurtek-ek ahalik eta kongresukide gehien erakarri nahi ditu Frantziatik eta Portugaletik, beren hurbiltasunagatik eta kokapen estrategikoagatik herrialde horiek negozio aukera handiak eskaintzen dizkiotelako Estatuko sektoreari, eta hau gero eta interesatuago dago zura oinarritzat duten lanetan.

GOI-MAILAKO NAZIOARTEKO HIZLARIAK

2018ko Egurtek ekitaldiaren 7. edizioak arrakasta handia izan zuen.

1.149 kongresukide bildu ziren kongresuaren bi egun trinkoetan, zeintzuetan hizlariak hizpide hartu zituzten zuraren proiektzio eta eraikuntza arloan egin duten ibilbide profesionalean zehar barneratutako ezagutzak, izandako esperientziak eta gaitutako erronkak.

Lehen edizioaz geroztik, Egurtek ekitaldiak **Estatuko zein nazioarteko goi-mailako 85 hizlari** ekarri ditu guztira. Aipagarriak dira, horien artean, **Shigeru Ban** arkitekto japoniarrak emandako hitzaldia (2014ko Pritzker saria), **Zaha Hadid** estudioko Víctor Oriverena; zurezko etxe-orratzen eraikuntza bultzatu duen **Michael Green** kanadarrarena; **Fernando San Hipólito**k egitura arinen optimizazio orijinalari buruz emandakoa; **Marcel Baumgartner**-ena, non Suitzako Monte Rosa neguko estazio ikusgarria aurkeztu baitzuen; **Iñaki Aspiazurena**; **Cazú Zegers** txiletarrarena; **Beatriz Bergasa** eta **Leire Badiola** donostiarrena edota **Tudor Radulescu** errumaniarrak Karmeldar Oinutsen Ordenako elizari buruz emandakoa.



EGURTEK SARIEN 5. EDIZIOA

Era berean, “Erakusketa-gunean” ikusgai egongo dira **Egurtek Sarien 5. edizio honetan parte hartzen duten** lehiakideen panelak. Sari horiekin aitortza egiten zaie “Eraikuntza”, “Barneko diseinua”, “Produktuaren diseinua”, “Bertako zura (Basque Quality)” eta “Argitalpena” arloetako lan onenei.

Aurtengo edizioan kategoria berri bat izango da sariketan: **“BEM SARIA”**, administrazio publikoak sustatutako eraikin edo ekipamendu bikainak sarituko dituena.

Azken edizioan 123 lan aurkeztu ziren guztira, denak ere ohargarriak beren kalitate eta orijinaltasunarengatik. 2012an sortu zenetik, Zurezko Arkitektura Sariketako parte-hartzaile kopurua handituz joan da urtez urte, sektoreko sari entzutetsuenetako bat bihurtzeraino.



SEKTORE PARTE-HARTZAILEAK:

- Arkitektura
- Zurezko etxeak
- Zurarentzako tratamenduak
- Eraikuntza jasagarria
- Ingeniaritzak eta dekorazioa
- Eraikuntzarako zura
- Egituren softwarea
- Zur, elementu eta materialen inportatzaileak
- Aldizkariak
- Elkarteak

EGURTEK